

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

Enpresa: Seguros Bilbao, Compañía Anónima de Seguros y Reaseguros

Produktua: Comercios

Hemen erregistratua: Espainia. Aseguru-entitatearen baimen-zenbakia: C0026

Aseguru-produktuari dagokion kontratu aurreko nahiz kontratuko informazio osoa beste dokumentu batzuetan dago, hala nola informazio-oharrear, bai eta aseguru-kontratuaren baldintza orokorretan, baldintza partikularretan eta, hala badagokio, baldintza berezietan ere.

Zertan datza aseguru mota hau? Asegurudunen ondarea babesteko estaldura zabala eskaintzeko dago pentsatuta Seguros Bilbao-ren Saltokietarako aseguria. Salmentara edo zerbitzuak ematera bideratutako saltoki komertzialak aseguratzeko eskaintza espezializatu bat egiteko aukera ematen du produktu honen malgutasunak.



Zer aseguratzen du?

- ✓ Suteak, eztandak eta tximista-kolpeak.
- ✓ Arrisku hedakorrak (bandalismo-ekintzak edo asmo txarreko ekintzak; euria, haizea, txingorra eta elurra; hausturen, gainezkatzeen edo istripuzko desbideratzeen ondoriozko uholdea; keak eragindako kalteak; espazio- edo aire-ontzien erorketa; lurreko ibilgailuen talka; soinu-uhinak, eta suteak itzaltzeko instalazio automatikoaren isuria edo ihesa).
- ✓ Estaldura osagarriak:
 - ✓ Aldi baterako habitaezintasuna edo alokairuen galera.
 - ✓ Hondakinak kentzea.
 - ✓ Suteak itzaltzearen eta suhiltzaile-zerbitzuen gastuak.
 - ✓ Norberaren dokumentuak birjartzea.
 - ✓ Lorategiak berreraikitzea.
- ✓ Uren ondoriozko kalteak.
 - ✓ Bilaketa, aurkikuntza eta konponketa.
- ✓ Kalte elektrikoak.
- ✓ Kalte estetikoak.
- ✓ Kontratuak estaltzen dituen ezbeharren ondorioz negozioa geldiarazteagatik eguneko kalte-ordainak.
- ✓ Erantzukizun zibila:
 - ✓ Ustiaketa.
 - ✓ Patronala.
 - ✓ Produktua/Lan-ostekoak.
 - ✓ Kanpoko lanak.



Zer ez du aseguratzen?

- ✗ Kontratuko baldintza orokorretan edo baldintza partikularretan jasota ez dauden gastu edo estaldurak, ez eta estalduratik kanpo berariaz uzten direnak ere.
- ✗ Asegurudunaren iruzurren edo erru astunaren ondoriozko kalteak.
- ✗ Aseguria kontratatzean bazeuden akatsak, eta herdoiltzearen edo fabrikazio-akatsen ondoriozko kalteak.
- ✗ Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalitako ezbeharrak.
- ✗ Instalazioak behar bezala kontserbatzeko ezinbestekoak diren konponketak ez egitea.
- ✗ Lurra finkatu, hondoratu, jausi edo lerratzearen ondoriozko kalteak, hurbileko nahiz urruneko kausa berme honek estalitako arrisku bat bada ere.
- ✗ Kontratuan deskribatutako tokitik kanpo dauden objektu aseguratuen suntsipen edo higadura, salbu eta tokialdaketa aurretiaz jakinarazita gauzatu bada.
- ✗ Itoginen, filtrazioen, hezetasunaren, kondentsazioaren eta euri-uren ondoriozko kalteak.
- ✗ Lurretik 15 cm-ra baino gutxiagora dauden salgaiek jasandako kalteak, edota paleten gainean ez daudenek jasandakoak, haien izaerak paletetan jartzea ahalbidetzen badu.
- ✗ Aseguratutako establezimenduko errentariak eta bertan daudenek eragindako kalteak.
- ✗ Aire zabalean dauden ondasunek jasandako kalteak.

- ✓ Maizterra jabearen aurrean.
- ✓ Lapurreta eta espoliazioa.
- ✓ Beiren, idazkunen, marmolen, granitoen eta gailu sanitarioen haustura.
- ✓ Babes juridikoa.
- ✓ Merkataritzarako laguntza.
- ✓ Laguntza informatikoa.
- ✓ Bidean dauden salgaiak.



Estaldurari dagokionez, murriztapenik dago?

- ! Haizeak eragindako kalteak bermatuko dira, baldin eta 96 km/h baino gehiagoko abiadurak erregistratzen badira (kalte hedakorren berme hedatua kontratatzen bada, 80 km/h), bai eta euriak eragindako kalteak ere, baldin eta orduko eta metro karratuko 40 litro baino gehiagoko prezipitazioak erregistratzen badira (kalte hedakorren berme hedatua kontratatzen bada, 20 litro metro karratuko eta orduko).
- ! Estaldura bakoitzaren irismena xehatzen da kontratuan, bai eta asegurdunaren ardurapeko zenbatekoak (frankiziak) eta estalita ez dauden zenbait egoera ere.



Non izango dut estaldura?

- ✓ Estaldura ezberdinetarako kontratuan xedatzen den lurraldean aplikatuko dira estaldurak.



Zer betebeharrak daukat?

- Asegurua kontratatzean benetako informazioa eta zehatza ematea, eta, kontratua indarrean dagoen bitartean, arriskuen inguruko aldaketak ahal bezain laster jakinaraztea.
- Jasotako abisu, erreklamazio, salaketa eta zitazio guztiak berehala jakinaraztea konpainiari.
- Aseguruaren kobrantza-jakinarazpena jaso bezain laster ordaintzea aseguruaren.
- Zazpi eguneko epean jakinaraztea asegurataileari gertakaria. Gertakaria hautematen den datatik hasita zenbatuko dira zazpi egun horiek. Kaltearen (hots, estalduraren eskaera baldintzatzen duen gertaeraren) inguruabar eta ondorioei buruzko informazio guztia eman beharko da.
- Zure eskumeneko baliabide guztiak erabiltzea, kalteak murrizteko.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratatzeko unean, eta kontratuan adierazitako ordainketa-metodoaren arabera. Kontratua luzatu egiten bada, berritzearen hasiera-datan.



Noiz hasten eta amaitzen da estaldura?

Lehen ordainketa egindakoan hasiko da estaldura, eta kontratuan adierazitako data eta orduan amaituko.



Nola ezezta dezaket kontratua?

Idatzizko jakinarazpen bat bidalita aseguru-entitateari, indarrean dagoen aseguru-aldia amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez.